Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua

SERVICIO NAVARRO DE EMPLEO
NAFAR LANSARE

JARDUERA-AKORDIOA FORMALIZATZEA

Alde batetik,

jauna/andrea, NAN/AIZ zenbakia ,enplegu zerbitzuen eskatzailea den aldetik Enplegu

Bulego honetan: Tudela eta beste aldetik, Nafar Lansare Enplegu Zerbitzu Publikoa (NL-NEZ).

ADOSTU DUTE

Dokumentu hau sinatzea, enplegua modu aktiboan bilatzen ari dela egiaztatzeko baldintza baita, 438/2024 Errege Dekretuaren 45. artikuluan xedatutakoaren arabera (438/2024 Errege Dekretua, apirilaren 30ekoa, Enplegu Sistema Nazionalaren Zerbitzuen Zorro Komuna eta Enpleguaren otsailaren 28ko 3/2023 Legean ezarritako zerbitzu bermatuak garatzen dituena), Enpleguari buruzko otsailaren 28ko 3/2023 Legearen 3.f) artikuluan ezarritakoa garatzen baitu.

KONPROMISOAK

Akordio hau sinatzen duen **enplegu-eskatzaileak** konpromisoa hartzen du honetarako:

1. Aktiboki parte hartzeko enplegu zerbitzu publikoak enplegarritasuna hobetzeko, enplegu-bilaketa aktiborako edo ekintzailetzarako adostutako eta proposatutako zerbitzu, programa eta jardueretan, eta, langabezia-prestazioen onuradunen kasuan, enplegu egokia onartzeko, otsailaren 28ko 3/2023 Legearen 3.g) artikuluan ezarritakoaren arabera.
2. Enplegu eskatzaile gisa inskribatzeari dagozkion betebeharrak betetzeko.
3. Otsailaren 28ko 3/2023 Legearen 58. artikuluan eta apirilaren 30eko 438/2024 Errege Dekretuaren 36. artikuluan ezarritako gainerako konpromisoak bere gain hartzeko; besteak beste, honako hauek:
   3.1. Betetzea, justifikatutako kasuetan izan ezik, akordio honetan jasotako ibilbidean edo jarduketa-plan pertsonalizatuan adierazitako prestakuntza ekintzak eta gutxieneko irakastorduak, eta, hala badagokio, lortutako edo hobetutako gaitasunak eta trebetasunak ebaluatzea.
   3.2. Enplegarritasuna hobetzeko jarrera aktiboa izatea, jarduketa plan edo ibilbide pertsonalizatuan adierazitako jarduerak betez.
   3.3. Langabezia-prestazioen onuraduna bada, enplegua modu aktiboan bilatzeko konpromisoa izanen du, bai eta enplegu egoki bat onartzeko konpromisoa ere, aipatutako artikuluan ezarritakoaren arabera, eta motibazioko, informazioko, orientazioko, prestakuntzako, birmoldatzeko edo laneratzeko ekintza espezifikoetan parte hartu beharko da, enplegagarritasuna areagotzeko.

Nafar Lansare Enplegu Zerbitzu Publikoa (NL-NEZ),konpromisoa hartzen du honetarako:

1. Orientazio zerbitzua eskatu eta hiru hilabeteko epean, banakako profiletik eratorritako ebaluazioa izateko; urtarokotasunaren ondorioz, salbuespenezko arrazoiak daudenean, ebaluazio hori hilabete batez luzatzen ahal izanen da, apirilaren 30eko 438/2024 Errege Dekretuaren 12.3. artikuluaren arabera.
2. Jarduketa plan pertsonalizatuan edo ibilbidean konprometitutako jarduketetan lagun egiteko eta

banakako jarraipena egiteko, bai eta hura berrikusteko eta eguneratzeko ere, tutore baten bidez.

3. Kontuan hartzea bizitza pertsonala eta familiak bateragarri egiteko betebeharrak, bai eta lehentasunezko kolektiboenak ere.
4. Errazteko enplegu zerbitzu publikoen eskatzailearen enplegagarritasuna hobetzeko interesgarriak diren baliabideei buruzko informazioa eta/edo baliabide horiek eskuratzea.

KLAUSULA GEHIGARRIA

1. Jarduera akordio hau sinatzeak egiaztatzen du enpleguaren bilaketa aktiboa.
2. Egintza honetan bertan, enplegu eskatzaileari berariaz jakinarazten zaio enplegagarritasuna hobetzeko eta enpleguaren bilaketa aktiborako jarduerak egin behar dituela; halaber, eskubidea dauka bere ibilbidea edo jarduketa plan pertsonalizatua adosteko, eta horrek berekin dakar adostutako jarduketak egiteko eta lanpostu egoki bat onartzeko betebeharra.
3. Eskatzaileak bere gain hartzen dituen betebeharrak justifikatu gabeko arrazoiengatik betetzen ez baditu, horrek berekin ekar ditzake Lan-arloko Arau-hauste eta Zehapenei buruzko Legearen testu bateginean aurreikusitako zehapenak (abuztuaren 4ko 5/2000 Legegintzako Errege Dekretuak onetsi zuen testu bategina).
4. Enplegu Zerbitzu Publikoak edo entitate laguntzaileak ez badu betetzen akordio hau sinatzen duen eskatzailearen ibilbidean edo jarduketa plan pertsonalizatuan konprometitutako zerbitzuak edo jarduera zehatzak emateko betebeharra, eskatzaileari ezin izanen zaio egotzi jarduera akordio ez betetzea.
5. Jarduera-akordio honek indarra hartuko du sinatzen denetik eta eten eginen da pertsonak enplegu zerbitzuen eskatzailea izaten jarraitzen ez duenean edo arrazoi justifikaturik gabe betetzen ez duenean.
6. Prestazioak eskatzen edo jasotzen baditu, enplegu zerbitzuen eskatzailea izaten jarraitu behar du eta jarduera-akordio hau sinatu eta bete.
7. Eskatzaileari berariaz jakinaraziko zaio jarduera-akordio honetako datuak bere laneko espediente bakarrean sartuko direla, bai eta enplegu zerbitzu publikoetako Informazioaren Sistema Publiko Integratuan.

Data eta eskatzailearen sinadura *Data eta sinadura NL-NEZ*

Jarduera akordio hau sinatzen duen Enplegu Zerbitzu Publikoak bermatzen du bitartekotza lanak egiteko eta enplegagarritasuna hobetzeko lanak egiteko bere esku dauden datu pertsonalen konfidentzialtasuna; horrela, emandako datu guztiak konfidentzialtasunez tratatuko dira eta behar bezala zainduko dira, Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa betez. Aipatutako datuak beste administrazio publiko batzuei eta enpleguaren arloko beste entitate laguntzaile batzuei lagatzen ahal izanen zaizkie, interesdunaren berariazko baimenik gabe.

Jarduera akordio hau sinatzen duen eskatzaileak baimena ematen dio sinatzen duen Enplegu Zerbitzu Publikoari beste edozein administrazio edo erakunde publikoren datuak egiaztatzeko, enpleguarekin lotutako eginkizunak garatzeko behar den eremuan.